



**GURUTZ  
BIDEA**

**Etxebarria'tar Juan Anjel**

# **GURUTZ - BIDEA**

**Etxebarria'tar Juan Anjel**

**S. Anton'go Katekesia**

**Euskal-argitalpenak**

Depósito Legal - BI - 643 - 1966

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

- 1 — Phedro'ren Alegiak I
- 2 — Martial'en Ziri-Bertsoak I
- 3 — Phedro'ren Alegiak II
- 4 — Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
- 5 — Euskal Iztegi Laburra (A)
- 6 — Esopo'ren Alegiak I
- 7 — Agustin Deunaren Eskutitzak I
- 8 — Gurutz - Bidea

NIHIL OBSTAT  
Ltc. Jesús Garay Isasi  
Censor Ecco,

IMPRIMATUR  
Bilbao, 26 de Abril de 1966  
PABLO, Obispo de Bilbao

## SARRERA

Nazan guztia ezerezetik  
atara ninduzun Jauna:  
Nire utsean murgil egiñik,  
biurtu nadin Zugana.

### I

Bizitza zeran orri emoten  
dautsue erio-epaia.  
Irazakiak irazaillea  
lotu ta azpiratu-naia!  
Nire bizitza  
beite eriotza,  
zureak bizi-azia.

## II

Gurutz astuna gorputz-gaiñean,  
Kalbari-mendira zoaz  
gaizkille baten gisa. Ni, barriz,  
bizi atsegin gozoaz.  
Emon eidazu  
gurutze-pixu,  
ta zatoz, Atsegin, nigaz!

## III

Jesus, auldua, lenengoz jausi  
da gurutzaren azpian.  
Orrenbesteko neke-aldia  
gugaitik izan zenduan.  
Gaurtik aurrera,  
zure ondora  
noala beti, jaustean!

## IV

Ama-Semeak alkar ikusi!  
Lagunabarra jaramon  
barik aurrera. Zuk zoritxarra;  
eurak, ostera, zorion!  
Etzara bakar  
joango. Negar-  
pozetan nik Zuri itxaron!

## V

Lurbira ibilli-arazten dauan  
Jaun alguztidunak ezin  
eroan gurutz bat, akiturik.  
Poz eta nekeetan bardin,  
Zu laguntzeko  
beti artuko  
dot nire gurutzea arin.

## VI

Beronika arek Zuri mosua  
garbitu ta Zuk berari  
zapia bete zure irudiz.  
Lagunak muzin? Neu ari  
naitela, apal,  
Zurekin leial  
ta zakidaz Zeu emari!

## VII

Bigarren aldiz Jesus lurrean,  
oiñazearen oiñazez.  
Nire eroriak Bera bultzatu.  
Ba-darabagit: obenez  
bea jo arren,  
beti jaikiren  
maitasunan maitasunez

## VIII

Jerusalem'go alabok, Niri  
negarrik ez, Jaunak diño.  
Zuokaitik, bai, eizue negar.  
Egur igarra nazaño,  
barrua intziriz  
ustuko dot, biz  
daiten guna zeruraño.

## IX

Irugarrenez Jesus lurrera  
erori da il baiño len.  
Amaika bidar jausiko naz ni,  
oraindiño, or-an-emen.  
Jagiko al naz,  
Zurekin Aintzaz  
betiko gozatu naiten.

## X

Danen aurrean Jesus Maitea  
 ipiñi dabe billoisik.  
 Garbitasuna bera dan Jauna!  
 Gizon zar, alde nigandik!  
 Sar, Jauna, ene  
 barruan, bene  
 benetan Zu biurturik!

## XI

Zeru ta lurra ein ebazan A,  
 zeru-lurren artean, bi  
 giza gaiztoren erdian dager  
 josita, untzez ta guzti.  
 Nire naimena  
 josi dot, Jauna,  
 gaiztakeritik urruti.

## XII

Aitari deika iltzen da Jesus,  
 soiña ta burua makur.  
 Neuk il dot, oben askotarikoz.  
 Azkenengo orduan, uzkur  
 ez nadin, betor  
 zure itza pozkor:  
 «Gaur zagoz zeruan ziur».

## XIII

Jesus lurrera eraitsi dabe,  
 Amaren besoetara.  
 Semea zauriz, Ama atsekabez.  
 Ba-dot emen zer aukera:  
 -Zaurion miña  
 zaindu, Birjiña,  
 etor arte biztuera.



## XIV

Kristo lurpean, artzulo baten,  
izaraz eta okenduz.

Laster betiko berbiztuko da.

Nire kezka entzun, Jesus:

- Lurrarentzat il,

goian Zugaz bil

naizu, dantzaz eta txistuz.

## AMAIERA

Gurutze-Bide onen indarrez,

erantzi naitela guztiz

ezkutuzko oben danen orbanez

ta ibil nadin zure argiz